



## V. ERANSKINA

### **PROBA EBALUAGARRIAK BERRIKUSTEKO PROZESA (IKASTURTEAREN BARRUAN ETA AMAIERAN) ETA ERREKLAMAZIO-PROZESA (BARNEKOA ETA KANPOKO), AZKEN KALIFIKAZIOEN AURKA ETA MAILAZ IGOTZEKO ETA TITULAZIOA LORTZEKO ERABAKIEN AURKA**

#### **Aplikazio-esparrua**

Jarraibide hauek aplikatuko dira Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan.

#### **Ikasleek ebaluazio objektiborako duten eskubidea**

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko Dekretuan (**201/2008 Dekretua, abenduaren 2koan**) aurreikusitakoaren arabera, ikasleek eta haien gurasoek edo legezko ordezkariek —ikaslea adingabea denean—beren seme-alabei edo tutoretzapekoei egiten zaizkien ebaluazioen inguruko ebidentzia guztiak eta ebaluazio-dokumentu ofizialak eskuratu ahal izango dituzte, betiere ikastetxeko antolamendu- eta funtzionamendu-arauek zehazten duten moduan. Era berean, irakasleei argibideak eskatu ahal izango dizkiete etengabeko ebaluazioaren emaitzei buruz, arloko ikasturte amaierako ebaluazioari buruz eta mailaz igotzeko erabakiei buruz.

Ikastetxeek jakinarazi beharko dute ikasleek eta haien gurasoek, edo legezko tutoreek, nola eska diezazkieketen irakasleei edo tutoreei ikaslearen ikasketa-prozesuaren inguruau jasotzen dituzten informazioei buruzko argibideak. Bestalde, jakinaraziko dute zein bide erabili behar duten kalifikazioei buruzko erreklamazioak egiteko, baldin eta erreklamazioa jartzea egoki baderitzote.

Irakasleek beren ikasleen ebaluazio- eta kalifikazio-prozesua zehazten duten ebidentziak erregistratu beharko dituzte.

Gurasoek, edo legezko ordezkariek, eta ikasleek beren errendimenduaren ebaluazioan eragina duten dokumentu-ebidentziak eskuratu ahal izango dituzte, eta, hala eskatzen badute, haien kopia bat lor dezakete, behin zuzendu ondoren.

Era berean, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte eta ebaluazioaren emaitza berrikus dadin eskatu ahal izango dute. Ikastetxeek ezarriko dute zer prozedurari jarraitu beharko zaion berrikuspena eskatzea, eta aditzera emango dute berrikuspen hori zer epetan eta



baldintzatan egingo den. Berrikuspen hori egiterakoan kontuan hartuko da irakasleentzat lotesleak direla curriculum ofizialak, ikastetxeko curriculum proiektuak, gelako programazioak eta ikasturtearen hasieran argitaratu ziren ebaluatzeko, kalifikatzeko eta mailaz igotzeko irizpideak.

### Ebaluazio-probak zaintzea eta eskuratzea

1. Ikasleek eta, ikasle adingabeen kasuan, haien gurasoek, edo legezko ordezkariak, azken ebaluazioan eragina izango duten probak eta ariketak eskuratu ahal izango dituzte, behin zuzendu ondoren.
2. Ebaluazio-prozesuaren ebidentzia dokumentalak ikasturteko edozein unetan eskuratu ahal izango dira. Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamenduan edo Barne Araubideko Erregelamenduan jasoko da sarbide hori erraztuko duen prozedura.
3. Ebaluazio-prozesuaren ebidentzia dokumentalak ikastetxeen gordeko dira ikasturtearen amaierara arte. Epe hori amaitu denean, suntsitu ahal izango dira edo ikaslei eman ahal izango zaizkie, baldin eta erreklamazio bat egin ez bada eta erreklamazio hori ebazteko ebidentzia horiek kontuan hartu behar ez badira.
4. Erreklamazio bat ebazteko kontuan hartu behar diren ebidentzia dokumentalak gorde egin beharko dira haien gaineko administrazio-ebazpena edo ekintza judiziala posible den bitartean. Kasu horretan, ebaezpena irmo izan arte mantenduko dira.

### Berrikusteko eta erreklamatzeneko prozedura.

#### 1.- Proba ebaluagarriak BERRIKUSTEKO prozedura

##### 1.A.- Ikasturtean zehar (ebaluazio ez ofizialak, kalifikazio partzialak)

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko Dekretuaren (201/2008 Dekretua, abenduaren 2ko) 9.2 artikuluak hau dio ikastetxeen buruz: ***"azken kalifikazioaren gain eragina izango duten lanak, ariketak eta probak zuzendu ondotik ikusteko aukera bermatuko zaie".***



Hori dela eta, ikastetxeek beren **Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamenduan edo Barne Araubideko Erregelamenduan** procedura bat izan beharko dute arautzeko ikastetxearen barruan zer procedura jarraituko den ikasturte osoan ikasleen ikaskuntza-prozesuari buruz egiten diren lan, ariketa eta proba ebaluagarrien berrikuspena errazteko. Ikastetxeek berrikuspen hori egiteko prozedurari buruzko beharrezko informazioa eman eta hedatuko dute.

**Ebaluazioa eta kalifikazioa egin duen pertsonak**, edo hura legez ordezkatzen duenak, egingo du ebaluatu beharreko lanen, ariketen eta proben berrikuspena. Ebalua daitezkeen lanak, ariketak eta probak berrikus daitezke, baita kalifikazio partzialak (ebaluazio ez ofizialak) ere; alabaina, **ezin da horien aurkako erreklamaziorik jarri**. Akta ofizialetan agertzen diren azken kalifikazioei eta mailaz igotzeko eta/edo titulazioa lortzeko erabakiei soilik jarri ahal izango zaizkie erreklamazioak.

#### **1.B.- Ikasturtearen amaieran (ebaluazio ofizialak, azken kalifikazioak)**

Ikastetxeek bermatuko dute azken kalifikazioen aurkako **barne-berrikuspenerako eta -erreklamaziorako eskubidea** (irakaslearen aurrean eta ikastetxeko zuzendariaren aurrean, hurrenez hurren). Erreklamazio hori egin beharko da, bidezkoa bada, **kanko-erreklamaziora** jo baino lehen (dagokion Hezkuntzako Lurralte Ordezkarietan).

Ikasleek edo haien legezko ordezkariek bi lanegun izango dituzte azken kalifikazioen aurkako barne-berrikuspenerako eta -erreklamaziorako.

Berrikuspena errazte aldera, ikastetxeek azken kalifikazioak (ohikoak eta, hala badagokio, ezohikoak) jakinaraztearekin batera, irakasleak non eta zein ordutan egongo diren ikasleen eskura ere jakinaraziko dute. Ordutegiak bat etorri beharko du, gutxienez, azken kalifikazioak eman eta/edo jakinarazi ondoko bi egunetan irakasleak ikastetxean egon ohi diren ordutegiarekin.

**Berrikuspena egingo da ebaluazioa eta kalifikazioa egin duen pertsonaren edo pertsonen aurrean, edo legez ordezkatzen dituenaren aurrean.** Berrikuspena ezin izango da mugatu kalifikazio kuantitatiboa edo kualitatiboa adierazteria; egindako hutsegiteak edo akatsak adierazi beharko dira edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua jaso beharko da, eta, amaitzeke, **kalifikazioari eusteko edo aldatzeko erabaki arrazoitua emango da**.

Berrikusteko eskaera lotuta badago **arloa edo irakasgaia ez gainditzekeo erabakiarekin, eta, bereziki, mailaz ez igotzekeo edo titulazioa ez lortzekeo**



**erabakiarekin**, zehatz-mehatz adierazi beharko da zein diren mailaren edo etaparen helburuak edo zein den **lortu gabeko** konpetentzien gutxieneko garapen-maila, baita, hala badagokio, ikasleak zer zaitasun dituen aurrerapen egokia izateko, bereziki zaitasun horiekin mailaz igoz gero.

**OHARRA:****PROBA IDATZIEZ BESTELAKO TRESNEN BIDEZ EBALUATZEA**

Ebaluazio-prozesua proba idatziez (azterketak, ariketak) bestelako tresnen bidez egin bada, idatziz eta zehatz-mehatz azaldu beharko dira arlo edo irakasgaia gainditzea, mailaz igotzea eta/edo titulazioa lortzea eragozten duten eskuratu gabeko gutxieneko ikaskuntzen inguruko ebidentziak.

**2.- ERREKLAMAZIO-procedura azken kalifikazioen aurka (ebaluazio ofizialak)****2.A.- Barne-erreklamazioa, ikastetxeko zuzendaritzari**

Azken kalifikazioko ariketak berrikusi diren ala ez alde batera utzita, ikasleek, edo haien legezko arduradunek, **bi eskola-eguneko epean** aurkeztu ahal izango dute gai baten edo batzuen azken kalifikazioaren aukako erreklamazioa edo, hala badagokio, mailaz igotzea eta/edo titulazioa lortzeko erabakiaren aukako erreklamazioa; horretarako, **idazki arrazoitua bidaliko diote ikastetxeko zuzendariari**. Kalifikazioak jakinarazi, eta bi eskola-eguneko epeaz kanpo aurkezten diren erreklamazioak automatikoki baztertuko dira.

**Irakasgai** baten inguruko azken kalifikazioaren aukako erreklamazioen kasuan, ikastetxeko zuzendariak erreklamazioaren eraginpeko **irakasgaiaren ardura duen saileko buruari** helaraziko dio erreklamazioa. Saileko buruak **ezohiko bilera** deituko du, eta bilera horren **akta** egingo da. Bilera horretan, saileko kideek eztabaidatuko dute ea ebaluazioa eta kalifikazioa aurreikusitakoaren arabera egin diren eta ezarritako ebaluazio-irizpideak behar bezala aplikatu diren. Saileko buruak **txosten arrazoitua eta ebazpen-proposamena** bidali beharko dio zuzendariari **erreklamazio-aldia amaitu eta 24 orduko epean**. Pertsona bakarreko sailen kasuan, irakasgaiaren irakaslea eta ikasketaburua bilduko dira bileran.

**Mailaz igotzeko eta/edo titulazioa lortzeko erabakiaren aukako erreklamazioen** kasuan, ikastetxeko zuzendariak **ikaslearen talde ofizialeko tutoreari** helaraziko dio erreklamazioa. Tutoreak irakasle taldearen **ezohiko bilera** deituko du, eta bileraren **akta** egingo da. Tutoreak **txosten arrazoitua eta ebazpen-proposamena** **bidali**



**beharko dio ikastetxeko zuzendaritzari erreklamazio-aldia amaitu eta 24 orduko epean.**

Irakasgai baten azken kalifikazioaren aukako erreklamazioa onartzen bada, eta, ondorioz, **mailaz igotzeko eta/edo titulazioa lortzeko erabakia alda** bidaiteke edo aldatu behar bada, ikastetxeko zuzendariak **ikaslearen talde ofizialeko tutoreari** helaraziko dio ebazpena. Tutoreak irakasle taldearen **ezohiko bilera** deituko du, eta bileraren **akta** egingo da. Tutoreak **txosten arrazoitua eta ebazpen-proposamena** **bidali beharko dio** ikastetxeko zuzendaritzari **erreklamazio-aldia amaitu eta 24 orduko epean.**

Zuzendariak **ebatziko du** barne-erreklamazioa, ebazpenaren arrazoiak emanda, eta **erreklamatzaileari jakinaraziko zaio ebazpena**, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (39/2015 Legea) ezarritako moduan. Erreklamazioa onartzen bada, zuzendariak **bidezko aktak alda daitezen** aginduko du.

Ikastetxeko zuzendaritzak egindako barne-erreklamazioaren ebazpenaren aukako **kanpo-erreklamazioa jarri ahal izango zaio dagokion lurralte-ordezkaritzako titularrari.**

## **2.B.- Kanpo-erreklamazioa, Hezkuntzako lurralte-ordezkaritzari**

Barne-erreklamazioaren ebazpenarekin ados ez badaude, ikasleek edo haien legezko ordezkariek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute ikastetxeko zuzendariaren ebazpenaren aurka, ebazpena jakinarazi eta **bi laneguneko epean**. Horretarako, ikastetxeko zuzendaritzari idazki arrazoitu bat aurkeztu beharko diote, Hezkuntzako Lurralte Ordezkaritzara bidal dadin.

Ikastetxeko zuzendariak gehienez **hiru eguneko** epean bidaliko dio erreklamazio-idazkia Hezkuntzako Lurralte Ordezkaritzako titularrari, erreklamatzaileak aurkeztutako dokumentazioarekin batera eta erreklamazioa eragin duen kalifikazioaren ebidentzia guziekin batera.

Ebidentzia horien artean egongo dira ikastetxeen egindako barne-erreklamazioan sortutako dokumentazioa, erreklamazioan sortutako beste edozein gorabehera, erreklamazioa eragin duten jatorrizko ariketak, programazioa jasotzen duen sailaren dokumentazioa, eskatutako gutxieneko konpetentzia-maila, ebaluazio-irizpideak, eta abar.



Lurralde Ordezkaritzako titularrak erreklamazioa ebatziko du, **Hezkuntzako Ikuskaritzak txosten arrazoitua** eman ondoren. Txosten hori gehienez ere **hamar egun naturaleko** epean egin beharko da.

Txosten hau egiteko garaian, Hezkuntzako Ikuskaritzak alderdi hauek hartuko ditu kontuan: honako jarraibide hauek; ikastetxearen curriculum-proiektua; kasuan kasuko arloaren edo irakasgaiaren programazio didaktikoa; ebaluazio-irizpideak; eska daitezkeen gutxieneko konpetentzia-mailak; gertaera publikoak kalifikatzeko irizpideak; kalifikazioa eusten duten ebidentziak; ebaluazio-prozesuan erabilitako tresnak eta prozedurak; ikaslearen ariketak, lanak, probak eta azterketak; eta, hala badagokio, beste ikasle batzuen ariketak, lanak eta azterketak, konparazioak egin ahal izan daitezen eta ikasle erreklamatzaileak lortutako kalifikazioak modu objektiboan baloratu ahal izan daitezen.

Txosten horretan, Hezkuntzako Ikuskaritzak proposamen arrazoitua egingo du erreklamazioaren onarpen osoari edo partzialari buruz, erreklamazioa ezesteari buruz, prozeduraren atzeraeraginari buruz —ebaluaziorako beste proba eta/edo ariketa batzuk egiteko—, edo ikastetxeak argitaratutako kalifikazio-irizpideetan aurreikusitakoarekin bat ez datozen kalifikazioak aldatzeari buruz.

**Lurralde-ordezkaritzaren titularrak modu arrazoituan ebatziko du erreklamazioa, eta gehienez ere hiru eguneko epean egingo du, ikuskapen-txostena jasotzen duenetik hasita.** Ikastetxeko zuzendaritzaren bidez jakinaraziko die bere ebazpena **ikasleari**, kalifikazioa erreklamatzen zaion arloko **irakasleari** eta **irakasle taldeari**.

#### OHARRA:

#### EBALUAZIOA PROBA IDATZIEZ BESTELAKO TRESNEN BIDEZ

Ebaluazio-prozesua proba idatziez (azterketak, ariketak) bestelako tresnen bidez egin bada, idatziz eta zehatz-mehatz azaldu beharko dira arlo edo irakasgai gainditzea, mailaz igotzea eta/edo titulazioa lortzea eragozten duten eskuratu gabeko gutxieneko ikaskuntzen inguruko ebidentziak.

**2.C.- Gora jotseko errekursoa, Hezkuntza Sailburuordetzari**

Hezkuntzako Lurralde Ordezkartzaren titulararen ebazpenaren aurka **gora jotseko errekursoa** jarri ahal izango zaio **Hezkuntzako sailburuordeari** hilabeteko epean.



## ANEXO V

### **PROCESO DE REVISIÓN DE PRUEBAS EVALUABLES (A LO LARGO DEL CURSO Y AL FINAL DEL CURSO) Y PROCESO DE RECLAMACIÓN (INTERNA Y EXTERNA) CONTRA LAS CALIFICACIONES FINALES Y CONTRA LAS DECISIONES DE PROMOCIÓN Y/O TITULACIÓN**

#### **Ámbito de aplicación**

Las presentes instrucciones se aplicarán en los centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco en los que se imparten las enseñanzas de la Educación Básica y Bachillerato.

#### **Derecho del alumnado a una evaluación objetiva**

Según lo previsto en el **Decreto 201/2008**, de 2 de diciembre, sobre derechos y deberes de los alumnos y alumnas de los centros docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el alumnado y sus padres, madres o representantes legales, cuando el alumno o alumna sea menor de edad, tendrán acceso a los documentos oficiales de evaluación y a toda evidencia sobre las evaluaciones que se realicen a sus hijos o tutelados en la forma que determinen las normas de organización y funcionamiento del centro. También podrán solicitar aclaraciones al profesorado, acerca de los resultados de la evaluación continua, de la evaluación final de curso en alguna de las áreas y sobre las decisiones de promoción.

Los centros deberán hacer público el procedimiento mediante el cual el alumnado y sus padres, madres, tutores o tutoras legales podrán solicitar aclaraciones a los profesores, profesoras, tutores o tutoras acerca de las informaciones que reciban sobre su proceso de aprendizaje, y también harán público el cauce a seguir para formular reclamaciones sobre sus calificaciones en el caso de que lo estimen oportuno.

El equipo docente deberá hacer registro de las evidencias que determinen el proceso de evaluación y calificación de su alumnado.

Los padres, madres o representantes legales y los alumnos y las alumnas, podrán acceder a las evidencias documentales con incidencia en la evaluación de su rendimiento, y si lo solicitan, a una copia de las mismas, una vez que hayan sido corregidas.

Igualmente podrán presentar alegaciones y solicitar la revisión del resultado de la evaluación. Los centros educativos establecerán el procedimiento a seguir para solicitar la revisión señalando los plazos y condiciones en que dicha revisión tendrá lugar. Al realizar dicha revisión se tendrá en cuenta el carácter vinculante que para los profesores



y las profesoras tienen el currículo oficial, el Proyecto Curricular del Centro, las Programaciones de Aula y los criterios de evaluación, de calificación y de promoción que hayan hecho públicos al comienzo del curso académico.

### Custodia y acceso a las pruebas de evaluación

1. Los alumnos y alumnas y, en el caso del alumnado menor de edad, sus padres y madres o representantes legales, tendrán acceso a las pruebas y ejercicios que vayan a tener incidencia en su evaluación final, una vez que hayan sido corregidos.
2. El acceso a las evidencias documentales del proceso de evaluación debe ser posible en todo momento del curso. En el ROF o RRI recogerá el procedimiento que facilitará dicho acceso.
3. Las evidencias documentales del proceso de evaluación se conservarán en el centro hasta final de curso. Transcurrido ese plazo, podrán ser destruidos o entregados a los alumnos y a las alumnas, siempre que no se hubiera producido reclamación en cuya resolución debieran ser tenidos en cuenta.
4. Las evidencias documentales que deban ser tenidas en cuenta para resolver sobre una reclamación deberán conservarse mientras sea posible una resolución administrativa o una acción judicial sobre las mismas. en cuyo caso, se mantendrán hasta su resolución con carácter firme.

### Procedimiento de Revisión y Reclamación

#### 1.- Procedimiento de REVISIÓN de pruebas evaluables

##### 1.A.- A lo largo del curso (evaluaciones no oficiales, calificaciones parciales)

El artículo 9.2 del Decreto 201/2008-de 2 de diciembre, sobre derechos y deberes de los alumnos y alumnas de los centros docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, indica que **los centros docentes “garantizarán el acceso, previa solicitud, a todos los trabajos, ejercicios y pruebas que hayan de tener incidencia en la calificación final, una vez que hayan sido corregidos”**.

Por tal motivo, los centros deberán disponer en su **Reglamento de Organización y Funcionamiento o en su Reglamento de Régimen Interno** de un procedimiento que regule, en instancias internas al propio centro, los procedimientos a seguir para



facilitar la revisión de los trabajos, ejercicios y pruebas evaluables que a lo largo del curso se emitan sobre el proceso de aprendizaje del alumnado. Los centros proporcionarán y difundirán la información necesaria sobre el procedimiento para efectuar dicha revisión.

La revisión de los trabajos, ejercicios y pruebas evaluables **será llevada a cabo por la persona o personas que hayan realizado la evaluación y calificación**, o quien legalmente les sustituya. Los trabajos, ejercicios y pruebas evaluables, así como las calificaciones parciales (evaluaciones no oficiales) pueden ser revisados, pero **no son susceptibles de reclamación**. Solo puede reclamarse las calificaciones finales y las decisiones de promoción y/o titulación, que aparecen en las actas oficiales.

#### **1.B.- Al final del curso (evaluaciones oficiales, calificaciones finales)**

Los centros garantizarán el **derecho a la revisión** (ante el profesor/a) y **reclamación interna** contra las calificaciones finales (ante el director del centro), que será necesario seguir antes de recurrir, si procede, a la **reclamación externa** (ante la correspondiente Delegación Territorial de Educación).

Los alumnos o sus representantes legales dispondrán de dos días laborables para la revisión y reclamación interna contra las calificaciones finales.

Para facilitar la revisión, los centros comunicarán junto con las calificaciones finales (ordinarias y, en su caso, extraordinarias) el lugar y el horario en el que el profesorado se encontrará a disposición del alumnado. El horario deberá corresponder como mínimo con el horario de permanencia habitual del profesorado en cada uno de los dos días de revisión y reclamación tras la entrega y/o notificación de las calificaciones finales.

**La revisión será realizada ante la persona o personas que hayan realizado la evaluación y calificación, o quien legalmente les sustituya.** La revisión no se podrá limitar a la expresión de una calificación cuantitativa o cualitativa, sino que debe contener la expresión de las faltas o errores cometidos o la explicación razonada de la calificación, y concluirá en una decisión razonada sobre el **mantenimiento o modificación de la calificación**.

En caso de que la solicitud de revisión esté relacionada con la **decisión de la no superación del área o materia, y especialmente de la no promoción de curso o la no titulación**, ha de indicarse de manera detallada y concreta cuáles son los objetivos del nivel o de la etapa o el nivel mínimo de desarrollo de las competencias **no alcanzado**, así como, en su caso, las dificultades que impiden que el alumno o la alumna tenga un adecuado progreso formativo en caso de que promocionara con dichas dificultades.

**NOTA:****EVALUACIÓN A TRAVÉS DE INSTRUMENTOS DIFERENTES A PRUEBAS ESCRITAS**

En aquellos casos en los que el proceso de evaluación se haya realizado mediante instrumentos diferentes a pruebas escritas (exámenes, ejercicios), será necesario explicitar por escrito de manera detallada evidencias sobre los aprendizajes mínimos no adquiridos que impidan la superación del área o materia, la promoción y/o la titulación.

**2.- Procedimiento de RECLAMACIÓN contra las calificaciones finales (evaluaciones oficiales)****2.A.- Interna, ante la dirección del centro**

Independientemente de que se hayan revisado o no los ejercicios objeto de calificación final, el alumnado o sus responsables legales podrán presentar en el plazo de **dos días lectivos**, mediante **escrito razonado dirigido a la persona directora del centro**, reclamación contra la calificación final de una o varias materias y, en su caso, contra la decisión de promoción y/o titulación. Las reclamaciones presentadas fuera del plazo de dos días lectivos tras la notificación de las calificaciones serán automáticamente desestimadas.

En el caso de una reclamación contra la calificación final de una **materia**, el director o directora del centro trasladará la reclamación al **jefe o jefa del departamento responsable de la materia** objeto de reclamación. El jefe o jefa del departamento convocará una **reunión extraordinaria** del departamento, de la que se levantará **acta**, en la que los miembros del departamento debatirán si la evaluación y la calificación ha sido realizadas conforme a lo previsto, y con una correcta aplicación de los criterios de evaluación establecidos. El jefe o jefa del departamento deberá emitir al director o directora un **informe razonado con una propuesta de resolución en el plazo de 24 horas tras la finalización del periodo de reclamación**. En el caso de los departamentos unipersonales, la reunión tendrá lugar entre el profesor o profesora de la materia y el jefe o jefa de estudios.

En el caso de una reclamación contra la **decisión de promoción y/o titulación**, el director o directora del centro trasladará la reclamación al **tutor o tutora del grupo oficial del alumno o alumna**. El tutor o tutora convocará una **reunión extraordinaria** del equipo docente, de la que se levantará **acta**. El tutor/a deberá emitir a la dirección del centro un **informe razonado con una propuesta de resolución en el plazo de 24 horas tras la finalización del periodo de reclamación**.



En el caso de que una reclamación contra la calificación final de una materia fuera estimada, y en consecuencia fuera posible o necesaria una **modificación de la decisión de promoción y/o titulación**, el director o directora del centro trasladará la resolución al **tutor o tutora del grupo oficial del alumno o alumna**. El tutor o tutora convocará una **reunión extraordinaria** del equipo docente, de la que se levantará **acta**. El tutor o tutora deberá emitir a la dirección del centro un **informe razonado con una propuesta de resolución en el plazo de 24 horas tras la finalización del periodo de reclamación**.

La reclamación interna será **resuelta por el director o directora**, de forma motivada, y será **notificada a la persona reclamante** en la forma establecida en la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En caso de que la reclamación fuera estimada, el director o directora ordenará la **modificación de las actas correspondientes**.

La resolución de la reclamación interna realizada por la dirección del centro podrá ser objeto de **reclamación externa ante la persona titular de la delegación territorial correspondiente**.

## 2.B.- Externa, ante la delegación territorial de educación

En caso de disconformidad con la resolución de la reclamación interna, el alumnado o sus representantes legales podrán presentar reclamación contra la resolución del director o directora del centro en el plazo de **dos días laborables** tras la notificación de la misma, mediante escrito razonado presentado ante la Dirección del centro para su remisión a la Delegación Territorial de Educación.

El director o la directora del centro docente remitirá en un plazo máximo de **tres días** a la persona titular de la Delegación Territorial de Educación el escrito de reclamación junto con la documentación aportada por el reclamante, así como todas las evidencias que sustentan la calificación objeto de reclamación.

Entre estas se incluirán la documentación generada en la reclamación interna seguida en el centro, así como cualquier otra incidencia surgida en la reclamación, los ejercicios originales objeto de la reclamación, la documentación del departamento que recoja la programación, el nivel competencial mínimo exigido, los criterios de evaluación, etc.

La persona titular de la Delegación Territorial resolverá la reclamación, previo **informe motivado de la Inspección Educativa**, que deberá emitirse en un plazo no superior a **diez días naturales**.



Para la elaboración de este informe la Inspección de Educación tendrá en cuenta las presentes instrucciones, el Proyecto Curricular del Centro, la Programación didáctica del área o materia de que se trate, los criterios de evaluación, los niveles del desarrollo competencial mínimos exigibles, los criterios de calificación hechos públicos, las evidencias que sustentan la calificación, los instrumentos y procedimientos utilizados en el proceso de evaluación, los ejercicios, trabajos, pruebas y exámenes del alumno o alumna y, en su caso, de otros alumnos o alumnas, para poder establecer una comparación y poder valorar de manera objetiva las calificaciones obtenidas por el alumno o alumna reclamante

En dicho informe, la Inspección de Educación hará propuesta motivada sobre la estimación total o parcial de la reclamación, su desestimación, la retroacción del procedimiento a fin de que se realicen nuevas pruebas y/o ejercicios de evaluación o la modificación las calificaciones que no se ajusten a lo previsto en los criterios de calificación publicados por el centro.

**La persona titular de la delegación territorial resolverá la reclamación de forma motivada, en un plazo no superior a tres días a partir de la recepción del informe de Inspección, y notificará su Resolución, a través de la Dirección del Centro, tanto al alumno o alumna como al profesor o profesora del área cuya calificación se reclama y al equipo docente del grupo,**

**NOTA:**

**EVALUACIÓN A TRAVÉS DE INSTRUMENTOS DIFERENTES A PRUEBAS ESCRITAS**

En aquellos casos en los que el proceso de evaluación se haya realizado mediante instrumentos diferentes a pruebas escritas (exámenes, ejercicios), será necesario explicitar por escrito de manera detallada evidencias sobre los aprendizajes mínimos no adquiridos que impidan la superación del área o materia, la promoción y/o la titulación.

**2.C.- Recurso de alzada, ante la Viceconsejera de Educación**

Contra la resolución de la persona titular de la Delegación Territorial de Educación podrá presentarse **Recurso de Alzada ante la Viceconsejera de Educación** en el plazo de un mes.